

## A213. GIZARTE-LANA

### ***BIGARREN ARIKETA***

***Denbora, gehienez: 120 minutu.***

**Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz atariko orri honetan emandako jarraibideak.**

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita. Orriaren bi aldeak erabili. Orriei jarri zenbakiak, ez orrialdeei.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten. Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan hauek adieraztea:
  - **LEP kodea (A213)**
  - Identifikazio-**gakoa**
  - **Erantzuten ari zaren kasu praktikoaren zenbakia. Garrantzitsua:** hasi kasu praktiko bakoitzaren erantzuna orri berri batean, eta erabili ORRI BAT SOILIK –orrialde biak– KASU PRAKTIKO BAKOITZEKO. (Ez dira zuzenduko adierazitako luzera gainditzen duten erantzunak)
  - **Orri-zenbakia** / erabilitako orriak, **guztira**
- Kasu praktikoak erantzuterakoan, har itzazu kontuan irizpide hauek:
  - Gizarte-lanaren balio, printzipio eta arauak.
  - Lanpostuaren zereginak eta eginbeharrak Gasteizko Udalean.
  - Gaur egun indarrean dauden araudiak eta tresna teknikoak.
  - Gasteizen gaur egun dauden zerbitzuak, prestazioak eta baliabideak.
- Kasu praktiko bakoitzeko erantzunak zehatz eta argiak izan behar dute, eta testuinguruari egokituak. Ariketa hau zuzentzeko, kontuan hartuko dira azalpenaren ordena, zehaztasuna eta laburtzeko gaitasuna.

**Eskerrik asko zure laguntzagatik**

**1. KASU PRAKTIKOA****(10 puntu)**

*Violetak 37 urte ditu, Venezuelatik etorri da. Bi alaba ditu: 13 urteko Diana eta 8 urteko Sofía. 2019ko urtarrilean gure hirira emigratzea erabaki zuen. Gasteizen bizi den anaia baten etxebizitzan instalatu eta erroldatu dira. Violetak badu pasaportetik, baina egoitza-txartelik ez. Anaiaren etxebizitzan bizi delarik, lanean hasi da, etxeko langile, ezkutuko ekonomian, eta 400 € irabazten ditu hileko.*

*Egoera horretan 8 hilabete eman ondoren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzura joan da, prestazio ekonomikoen gaineko informazioa eskatzera, ez duelako aurrerantzean anaiarentzat zama izan nahi. Violetak alokatzeko etxebizitza bat aurkitu du, kontratu eta errolda aukeraduna; hileko 600 € ordaindu beharko du (gehi bermea, 1.200 €), baina ez du gastu guztiei aurre egiteko adina diru-sarrerarik.*

*Alabei aldaketara egokitzea nekeza egiten ari zaiela esan du. Dianak kezkatze du batez ere. Azaldu du Venezuelan ere Dianarekiko harremana konplikatu zela, baina Gasteizera iritsi direnetik okerrera egiten ari dela: maiatzean ikastetxetik kanporatua izan zen astebetetz, ikaskide batekin borrokatzeagatik, eta horren ondoren irainka oldartu zitzaion borrokan aurkitu zituen irakasleari, eta hura erasotzen ere saiatu zen. Horrez gain, askotan egiten du eskolatik kale, nahi duenean joaten da etxera... Ikastetxetik edo etxebizitzatik kanpo denean, ez daki zertan dabilen, ezta norekin ere, eta ikastetxeko tutoreak esan dio hainbat aldiz ikusi izan dutela institutuak gertuko parke batean, bera baino zaharragoak diren mutil batzuekin, cannabis kontsumitzaile ohikoak gainera. Violetak susmatzen zuen lehendik ere erretzen hasia izan zitekeela. Gainera, mezuak irakurri ditu alabaren sakelako telefonoan, eta uste du agian izan duela sexu-harremanik mutil batekin.*

*Aitortzen du une jakin batzuetan biak jartzen direla sutan, eta elkarri irainka amaitzen dutela. Violetak alabari zaplaztekorik jo izan diola inoiz edo behin, eta hark hormaren kontra bultzatu ama. Alabaina, beste une batzuetan askoz gertuagoko agertzen da, eta lasai asko hitz egin dezakete hain gogorra gertatzen ari den aldaketaz.*

*Bigarren elkarrizketan Violeta estu eta larri dago, oso, eta jakinarazi du Dianak ihes egin duela etxetik, eta 48 orduz egon dela berari buruz ezer jakin gabe. Etxean agertu gabeko lehen gauean desagertzea salatzen zuen, eta Udaltzaingoak parke batean aurkitu zuen. Elkarren arteko bizikidetzaren gehiago gaitzotu da, eta komunikazioa erabat galdu. Violetak jakinarazi du egoerak gaitzitu egin duela; une jakin batean, behera jo du emozionalki, eta kontatu du senarrak tratatu txarrak eman zizkiola, eta salatu zituen arren, ez zuela ezertarako balio izan.*

1.1.- Identifika ezazu kasuaren lehen elkarrizketan adierazitako eskaria. (2 puntu)

1.2.- Ze prestazio ekonomiko baloratu zenituzke familiari etxebizitza independentea lortzeko prozesuan laguntzeko? Zehaztu ezazu prestazio-mota, kontzeptua, gehieneko zenbatekoa eta tenporalizazioa. (2 puntu)

1.3.- Bigarren elkarrizketan, eta azken gertakariak kontuan hartuta, zer nolako esku-hartze profesionala egin behar luke gizarte-langileak bizikidetzaren alorrari dagokionez? (2 puntu)

Arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresna aintzat hartuta, eta behin egoera hau balioetsi duzula, adieraz ezazu zein larritasun-maila emango zenukeen “Gurasoen ezgaitasuna haurraren edo nerabearen portaera kontrolatzeko” adierazlean, eta justifikatu erantzuna. (2 puntu)

1.5.- Violetarekin arreta pertsonalizatuko plana (APP) osatzerakoan, zein 3 helburu funtsezko eta zein baliabide proposatuko zenituzke Violetari genero-indarkeriazko egoeraren aurrean laguntzeko? (2 puntu)

HELBURUAK	BALIABIDEAK

**2. KASU PRAKTIKOA****(10 puntu)**

*Antoniak 87 urte ditu, alargun dago, eta bakarrik bizi da bere etxebizitzan. Harreman ona du bi seme-alabekin, baina beraiengandik jasotzen duen laguntza eskasa da, familia- eta lan-erantzukizunak dituztelako.*

*Duela 2 urtetik hona Eguneko arreta-zentro batera joaten da 11:00etatik 21:00etara, astelehenetik igandera. Zentroak adinekoentzako garraio egokituko zerbitzua dauka, bai eta arlo hauetako profesionalez osaturiko lantalde bat: gizarte-langileak, erizaintza, erizaintzako laguntzaileak, animazio soziokulturala eta terapia okupazionala. Eguneko arreta-zentrorra joaten hasi zenean, 1. graduako mendekotasuna zuen aitortua (25 puntu).*

*Gaur-gaurkoz, Antoniak ez du bestelako laguntza-baliabiderik bere etxebizitzan.*

*Antonia oso emakume aktiboa izan da, jostuna lanbidez; emakume alai da, eta modu aktiboan hartzen du parte bere gustuko jardueretan (musika-terapia eta eskulanak). Harreman ona dauka zentroko zenbait kideekin (duela gutxi arte pasieran ibiltzen zen beraiekin auzoan zehar) eta baita lantaldekoekin ere.*

*Duela zenbait hilabetetik hona, Eguneko arreta-zentroko langileek funtzionalki mugatu egiten duen narriadura fisiko nabarmena antzeman diote Antoniari. Azken aldian triste dabil, eta narriadura kognitiboaren hasieran egon daitekeela susmatzen dute. Gizarte-langileak berriro mendekotasun-maila balioestea komeniko litzatekeela esan dio Antoniari, eta hark onartu egin du. Behin mendekotasun-maila balioetsi delarik, 1. graduako mendekotasun egoera aitortzen zaio Antoniari (43 puntu).*

2.1.- Egoera berriaren aurrean, eta Antoniarekin elkarrizketa egin aurretik: aipa itzazu gizarte-langile gisa Antoniari gomendatuko zenizkiokeen hiru ibilbide; baita aukeretako bakoitzean zein baliabide erabil ahalko lituzkeen; azkenik, adieraz ezazu baliabide horiek zein erakunderen eskumeneko diren. (2 puntu)

2.2.- Antoniarekin izandako elkarrizketan ibilbideetako bat adostu duzue (hauta ezazu horietako bat). Osa ezazu esku-hartzeko plan profesionala (helburuak eta jarduerak), zeinaren bitartez, eta gizarte-langile zaren neurrian, Antoniari lagunduko diozun bere erabakian eta baliabideen kudeaketan. Pertsonengan zentratutako arretan oinarrituta, aipa itzazu esku-hartze horren oinarritzko printzipioak. (3 puntu)

2.3.- Elkarrizketaren ondoren, dokumentazio ekonomikoa eskatu diozu Antoniari, dagozkion baliabideak kudeatzeko, eta gauza bitxiak atzeman dituzu: batetik, azken bi hilabeteetan nabarmen jaitsi dira Antoniak erabilgarri dituen aurrezkiak; bestetik, Eguneko arreta-zentroaren azken bi hilabeteetako kuotak ordaindu gabe daudela. Antoniarekin hitz egin duzu, eta hark kontatu dizu seme-alabetako bat bere etxebizitzara aldatu dela, bera eta ezkontidea banandu egin direlako, eta aurrezki-libreta eskatu diola kudeaketak egiteko, Antoniak denborarik ez duelako, Eguneko arreta-zentroan egoten baita. Horrenbestez, gaur-gaurkoz, Antoniak ez dauka bere egoera ekonomikoaren berri.

EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura aintzat hartuta, zein jarduera-plani ekingo zenioke? (3 puntu)

2.4.- Egoera hori aintzat hartuta, baimena eskatu diozu Antoniari, egoera balioesteko eta Fiskaltzari haren datuen berri emateko. Antoniak uko egin bio zure eskariari, eta ezer ez egiteko eskatu dizu. Gatazka etiko horren aurrean, nola jokatu zenuke? (2 puntu)

**3. KASU PRAKTIKOA****(10 puntu)**

*Gasteizko gizarte-etxeek Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (OGZ) hartzen dituzte euren instalazioetan. OGZetako lantaldeak gizarte-langileek, psikologoek, administrariak, kale-hezitzaileek eta OGZko arduradunak osatzen dute.*

*Gizarte-etxeko beste profesional batzuekin koordinatuta, OGZk bakarrik dauden adineko zenbait pertsonen kasua atzeman du. gizarte-etxera joan bai, joaten dira, baina ez dute jardueretan parte hartzen, ezta beste inorekin harremanetan jartzen ere. Zenbait kasutan haien senideek berek eramaten dituzte gizarte-etxera, eta ixteko orduan hartzen dituzte berriro. Bestalde, auzoan bizi diren lagundu gabeko gazte atzerritarren talde bateko kideek eguna ematen dute gizarte-etxean, baina ez dute zentroak antolatutako jardueretan parte hartzen.*

*Testuinguru hori aintzat hartuta, OGZk egoeraren diagnostikoa egitea planteatu du, bai eta belaunaldi arteko talde eta komunitateko esku-hartze proiektu bat abiaraztea ere.*

- 1.- Deskriba ezazu labur garatu beharreko belaunaldi arteko proiektua (helburuak eta jarduerak), metodologia eta parte hartuko duten eragileak. (6 puntu)
- 2.- Deskriba ezazu zein ebaluazio-mota baliatuko zenukeen, eta ebaluazio horretan kontu hartu beharreko 3 adierazle. (2 puntu)
- 3.- Zein da Gizarte-Lanaren ekarpen bereizgarria, gainerako diziplinekiko. (2 puntu)